



COVID-19: SEGURTASUN PROTOKOLOA AIRE ZABALEKO KULTUR JARDUERETARAKO.

Ibarrako Udalak protokolo bat ezarri du programatutako ikuskizun bakoitzera modu seguruan joateko, osasun-segurtasuna bermatzeko eta indarrean dagoen araudia betez:

1. Aire zabalean egiten diren ikuskizun guztiak esparru mugatuetan, edukiera mugatuarekin eta sarrera-kontrolarekin egingo dira. Ekitaldietara joateko gonbidapena Ibarrako kultur etxean jaso beharko da.
2. Sarrerak zenbakiak izango dira eta norbera dagokion zenbakidun eserlekuan eseriko da.
3. Ekitaldirako gonbidapena jasotzeko unean, interesdunaren izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa eskatuko dira, bertaratutakoen erregistroa izateko. Erregistro hori suntsitu egingo da jarduera egin denetik 15 egun igaro direnean.
4. Gonbidapenarekin batera honako protokoloa eskuratuko da. Gonbidapena jasotzearekin, baldintzak irakurri dituzula eta haiekin ados zaudela adierazten duzu.
5. Ikuskizunaren egunean sukarra baduzu edo ondoezik bazaude, mesedez, ez bertaratu.
6. Sarbidea eta erosotasuna errazteko, nahiko denboraz joan beharko da. Ikuskizuna hasi baino 30 minutu lehenagotik sartu ahal izango da. Ilara egiten den bitartean, segurtasun-distantzia (1,5 m) mantendu behar da ere.
7. Antolatzaileek bertaratutakoen eskura jarriko dute gel hidroalkoholikoa barrutirako sarbidean. Sartu aurretik eskuak desinfektatuko dira.
8. Sarrera eta irteera-ibilbideak adieraziko dira, pertsonen arteko bidegurutzeak saihesteko. Antolatzaileek ikusle bakoitzari zein eserleku dagokion adieraziko diote. Ezingo dira aulkiak lekuz aldatu.
9. Maskara derrigorrezkoa da 6 urtetik aurrera. Maskara jantzita eraman behar da momentu guztietan. Ikusle bakoitzak bere maskara eraman beharko du.



10. Esparru barruan ezin da jan, edan edota erre.
11. Ezin izango da zutik egon, eta aulkiak jarriko dira horretarako, metro eta erdiko tarteari eutsiz.
12. Ikuskizun osoan eserlekuetan egon beharko da. Ikuskizuna egiten den bitartean barrutitik irten behar izanez gero, ezin izango da berriro bertara sartu.
13. Esparruan, publikoak ezingo du inolaz ere artistekin edo teknikariek interakziorik izan.
14. Hurrek ezingo dute zutik egon, ezta esparruan mugitu ere. Aulkiak eta orgatxoak uzteko espazioak ezarriko dira.
15. Familiaren edo tutoreen ardura da adingabeek segurtasun-arau guztiak betetzea. Bete ezean, esparrutik alde egin beharko dute.
16. Ezin da animaliarik sartu, lazarillo txakurrak ez badira behintzat.
17. Irteera modu mailakatuan egingo da, antolakuntzaren argibideei jarraituz.
18. Programazioa edozein unetan ezeztatu edo eten ahal izango da COVID-19 egoeratik eratorritako arrazoiengatik.